



## Bezero kanalak

Gure produktua Instagram eta Twitter bidez salduko dugu, internet munduan mugituko gara. Hasiera batean gure enpresak ez du nahiko diru izango bigarren lokal bat denda moduan alokatzeko, beraz aukera eroso eta merkea dela pentsatu dugu.

Instagram erabiliko dugu oinarrizko sare sozial bezala. Sare honen bitartez gure banagailuaren argazki bat txertatuko dugu gure profilean, jendeak ikusi dezan. Guk igotako argazkian deskripzioa eta ezaugarriak aurkitu daitezke, interesa piztu zaien jendea informatzeko.



Twitter sare soziala ere erabiliko dugu gure salmentak igotzeko. Sare honetan, instagrameko estrategia berdina erabiliko dugu, baina desberdintasun batekin, Twitterren produktuaren informazio gehiago eta zehatzagoa emango dugu, plataforma honetan testu luzeagoak ohikoak direlako. Gainera, gure enpresan egiten diren berrikuntzak ere sare honen bitartez zabalduko ditugu.



Bi sare hauetan, jendeak gure produktuak ikusi eta interesa pizten zaienei zalantzak ebazteko, E-mail kontu bat daukagu, Twitter eta Instagramen ikusi daiteke. Bertan edozein motatako galderei erantzun bat ematen saiatuko gara.





Gure kontuak hurrengo hauek dira:

- Instagram → [pushupin2020](#)
- Twitter → [pushupin2020](#)
- E-mail → [pushupin2020@gmail.com](mailto:pushupin2020@gmail.com)